


Sagarra

- Larrazkeneko uztak aipa : udare, gaztaina, piko, mahats...
- Fruituen argazki erakusketa apaila.
- Puzzle bat edo puzzleak eraik fruitu ezberdinen irudiak katalogoetatik hartuz.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Ahoskera

/s/ eta /s/ xistukariak

Bi hots hauen ongi adierazteko adibideak har : *sagarra, sua, eskalea, ezkila, eztula, solasa...* eta ongi errepikaraz guziei.

Esaldiak errepikaraz :

« *Bi sagu solasean, zakuan dira sartu. »*

« *Zakuan dira sartu eta sei ziloetan kukutu. »*

Egon aditz trinkoa

Nago, hago, dago, gaude, zaude, zaudete, daude.

Ikasleak mugimenduan

Irakasleak ikasleak gomitutzen ditu lekuz aldatzera. Eta aldi oro « *Non zaude ?* », « *Non dago Antton ?* »... galderei erantzuteko, ikasleak egon aditza erabili behar du.

« Itsu-mandoka » jokoa

Haur batek begiak hetsirik, lagun bat besteen artean atzeman behar du, galde-erantzunei esker :

– *Non zaude Maider ?*

– *Hemen.*

– *Non zaudete Maider eta Peio ?*

– *Hemen.*